

Egunsentia Himalaian

Elurretan hondoraturik, kanpadendan estu-estu, izar sutsuen sinfonia entzuten da; bien bitartean, kanpoaldean, bizigiroa lehertu eta han-hemenka dabil, alderrai, inguruko guztia izotzezko geruzaren azpian bilduz. Haitzek, elurrak eta izotzak gainezka egiten dute inguru honetan, eta haien bat-bateko ahotsak gauaren isiltasuna urratu du.

Argitu du egun berria; estaltzen gaituen izotzezko kristal-geruza bere egin du. Lurrak dar-dar egin du. Inguruan dugun oro suspertu egin da. Argi-distira batek izotzezko malkoak erauzi dizkigu begietatik.

Elurrak dir-dir, itzalak aienatuz doaz, baina eguzkirik gabeko toki hauek eguneko argiaren magiatik at daude oraindik.

Egilea: Alberto Zerain (itzulpena: Inaxio Lopez de Arana).

Amaneciendo en el Himalaya

Hundidos en la nieve, apretujados en la tienda oímos la sinfonía de las estrellas ardientes. Mientras, la intemperie se desmelenada y deambula envolviendo con su manto helado todo cuanto nos rodea. Un mundo de nieve, roca y hielo inunda con su voz improvisada los silencios de la noche.

El sol vuelve a nacer otro día más y barre cada cristal de hielo que nos cubre. Vibra la tierra, todo cobra movimiento, un brillo de luz arranca lágrimas que se van helando en nuestras caras.

Resplandece la nieve, las sombras se van apagando y sólo esos espacios huérfanos de sol, siguen ajenos a la magia de la luz diurna.

Autor: Alberto Zerain.